

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

Ni, _____ jauna/andrea, adinez nagusia, NAN Zenbakia _____ izanik, eta jakinarazpenetarako helbidea _____ edukita, eta izen eta eskubide propioan eta interesdun-kondizioan jardunez, aurkeztu naiz eta Zuzenbidean hobeki dagokion moduan honako hau

ADIERAZTEN DUT:

Idazki honen bitartez, **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkezten dut, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu baino lehen, garaiz eta behar den moduan, Ingurumen Sailak emandako 2016ko apirilaren 11ko ebazpenaren aurka, betiere honako hauek adierazita:

LEHENA 2010eko apirilaren 23ko ebazpenaren bidez Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U enpresak Donostiako udalerrian sustatutako hondakinen baliotze energetikoaren proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko adierazpena egin eta Ingurumenaren baimen bateratua eman zitzaion.

BIGARRENA 2016ko apirilaren 11ko ebazpenaren bidez Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U enpresari Donostiako udalerrian hondakinen baliotze energetikorako emandako Ingurumenaren baimen bateratua aldatu egin zen

HIRUGARRENA 2016ko apirilaren 11ko ebazpena eman zenerako proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena eta Ingurumenaren baimen bateratua iraungita zeuden

Aipatutakoarengatik,

ESKATZEN DUT: Idazki hau aurkeztutzat hartu ondoren, emandako ebazpen horren aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkeztutzat har dezala, eta ebazpen hori baliogabetzeko.

Donostian, 2016ko maiatzaren 8an

Sinatuta